



HERRITARREN KONFIANTZA ETA GIZA KAPITALA GIZARTE KULTURANIZTUNETAN

Imanol Zubero



Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea



HERRITARREN KONFIANTZA ETA GIZA KAPITALA GIZARTE KULTURANIZTUNETAN

Imanol Zubero



ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Argitaraldia: 2010eko maiatza
Ale-kopurua: 500 ale
Argitaratzailea: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Inprimatzea: ITXAROPENA, S.A.
Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
ISBN: 978-84-9860-382-8
Lege-gordailua: BI-1418-2010

Aurkibidea

<i>Sarrera: Aniztasunaren ametsak munstroak sortzen ditu?</i>	7
1. Beste egia deseroso bat?	13
2. Etnia-aniztasuna eta giza kapitala: are eta bakartuago bolatokian?	17
3. Kontaktua, gatazka edo uzkurtzea?	19
4. Putnam Putnami buruz: analisisa bera alderantzikatzen	23
5. Beste salbuespen amerikar bat? Konfiantza eta aniztasuna AEBetatik harago	27
<i>Ondorioa: onarpena eta birbanaketa</i>	31
<i>Bibliografia</i>	37

HERRITARREN KONFIANTZA ETA GIZA KAPITALA GIZARTE KULTURANIZTUNETAN

Imanol Zubero
Soziologia Saila
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
imanol.zubero@ehu.es

Laburpena: *Robert Putnamek 2007an argitaratutako “E Pluribus Unum: Diversity and Community in the Twenty-first Century” artikulua berrero ere eztabaida bizia harrotu du etnia-aniztasunaren, eta gizartearen konfiantza-mailen eta giza kapitalaren arteko harremanari buruz. 2000. urtean AEBetan egindako ikerketa zabal batetik ateratako ebidentzia enpirikoan oinarriturik, Putnamek ondorioztatu du aniztasunak, epe ertainera bederen, ondorio txarrak dituela giza kapitalerako, bai taldetik kanpoko eta bai talde barruko elkartasuna murrizten duelako. Artikulu honek Putmanen lana aztertzen du, hainbat ikertzailek eztabaidari egindako ekarri nagusiak laburbiltzen ditu, eta ondorio hauxe ateratzen du, “kontaktuaren hipotesia”ren ildotik: arazoa ez da berez aniztasuna, baizik eta aniztasun hori desoreka- eta bereizkeria-egoeran bizi dutela herritarrek; ez dago herritar guztien berdintasuna berretsiko duen marko baten baitan desberdinen arteko ezagutza eta eragin-trukea bultzatuko duen politika publikorik, eta hortxe dago arazoaren muina.*

Sarrera: Aniztasunaren ametsak munstroak sortzen ditu?

Zenbait filosofok uste izan dute giza izate bakarria dagoela toki guztietan, eta hango eta hemengo gizarteetako erakunde eta legeen eraginez aldatzen dela izate hori. Irudi du, ordea, munduaren historiako pasarte bakoitzak gezurtatu egiten duela iritzi hori. Nazioek, gizabanakoen antzera, beren gorpuzkera dute. Jasaten dituzten aldaketen bidez adierazten dira beren izatearen bereizgarri nagusiak. Legeak, ohiturak eta erlijioak aldatu egiten dira, inperioa eta aberastasuna lekuz aldatzen dira, kanpoko itxura aldatu egiten da, janzkera aldatu egiten da, aurreiritziak desagertu egiten dira edo beste batzuk agertzen dira haien orde; baina, aldaketa askotariko horien artean, beti bereizten da herri bera. Giza malgutasunaren gainetik aldatzen ez den zer edo zer azaleratzen da.

Lautada landu kozkor honetan bizi diren gizon-emakumeak bi herritakoak dira, duela mende batetik hona Amerikako lurrian elkarrekin eta lege berberen mendean bizi diren bi herritakoak. Alabaina, ez dute antzik ezertan. Ingeles eta frantses dira oraindik ere, Sena eta Tamesis ibaien ertzetakoak diren moduan. (Tocqueville, 2005: 75)¹

1831ko uztailean idatzi zituen Alexis de Tocquevillek lerro horiek, Laku Handietako eskualde basotsuak zeharkatzeko egin zuen bi asteko ibilaldiaren ia amaieran. Versaillesko auzitegiko epaile laguntzaile gazteak bederatzita hilabete eta erdi –1831ko maiatzaren 11tik 1832ko otsailaren 20ra– egin zituen Ameriketako Estatu Batuetako espetxe-sistema ikertzen, eta halako arnasaldi bat izan zen hamabostaldi hura. AEBetako espetxe-sistema –“aurrerakoia zelako Europan goretsia” (Offe, 2006: 17)– ikertzen ez ezik, *La democracia en América (Demokrazia Amerikan)* lan mardularen bi liburuak mamitzen ere jardun zuen Tocquevillek egonaldi hartan. Aipatzen duen lautada landu kozkor horren altzoan, Saginaw herria zegoen. “Tribu basatien eta baso itxien artean ereindako ingurunea”, bidaiariaren oharretatik jasotakoaren arabera. Michigan ipar-mendebaldean europarrak bizi ziren azken herria zen Saginaw garai hartan. Hogeita hamar pertsona baino ez ziren, “zoriak, interesak edota grinak” hara eramanak; haien artean baziren “kanadarrak, amerikarrak, indioak eta mestizoak”. Hogeita hamar lagun haiek, bizileku bera izateaz aparte, “ez zituen

¹Ondoren egingo ditugun aipu guztiak 75 eta 80 orrialdeen artean ateratakoak dira.

beste ezerk lotzen, eta alde sakonak zeuden batzuen eta besteen artean”. Elkarrekin baino gehiago, bata bestearen ondoan bizi ziren, etnien arabera zatikatutako eremua hartzen zutela.

Hona frantses jatorriko gizon baten etxola. Basoko bizimoduaren baldintzetara ondo baino hobeto moldatu da, bere egin ditu Kanadako indioen janzkera eta bizimodu basatiaren ohiturak; alabaina, Tocquevillek harrotasunik ezkutatu gabe ohartarazten duenez, “gizonak ez dio horregatik frantses izateari utziko”. Zertxobait harago egin du bere bizilekua beste gizon zuri batek, “Ameriketako Estatu Batuetako etorkinak”. Hark, ordea, bizimodu basatira egokitu beharrean, hari gain hartzeko borrokan dihardu etengabe: “Piezaz pieza, bere legeak, ohiturak, erabilerak eta, ahal badu, bere zibilizazio aurreratuko fintasun txikiak eraman nahi ditu basamorturaino”. Ibaiaren beste aldean, “Saginawko kanaberradien artean”, jo dezagun basoaren beraren mugan, paratu du denda indioak. Hirurehun urte baino gehiago dira indioak hor bizi direla, zuri ondoan, “beren ur-etorria nahasten ez duten bi ibai paraleloren antzera”. Azkenik, “Saginawko beste ibaiertzean, europarrek soil dutako eremuetatik gertu eta, nolabait esatearren, Mundu Zaharraren eta Berriaren arteko mugaldea”, eraiki du bere etxola mestizoak. “Txabola erdi zibilizatua [...] basatiaren *wigwam*-a baino erosoagoa, baina gizon zibilizatuarena baino traukilagoa”. Eta, hain zuzen, Tocquevilleren irudiko, berak, mestizoak alegia, besterentzat paralelo doazen bi ibaien emariak nahastetik jaio den bakarrak, dauka zain paturik makurrena: identitatea galtzea. Hona pasartea:

Bi arrazaren ondorengoa, bi hizkuntzen erabileran hazia, askotariko sinesmenez elikatua eta aurreiritzi kontrajarrien bidez urrumatua, mestizoa nahas-mahas esplikagaitza da, bai beretzat eta bai besterentzat. Bere adimen simplean islatzen diren munduari buruzko irudiak kaos korapilatsu batekoak begintzen zaizkio, eta bere espirituak ez du asmatzen kaos horretatik nola atera. Harro dago jatorriz Europakoa izateagatik, mespretxatu egiten du basamortua eta, hala ere, maite du eremu basa hartako askatasuna. Miretsi egiten du zibilizazioa, baina ezin du haren agindupera erabat makurtu. Bere nahiak eta ideiak kontraesanetan daude, baita bere iritziak eta ohiturak ere. Ez daki nola jo argi egiten dion printza horretarantz, bere arima alderrai dabil zalantza unibertsal baten harat-honat etengabe, eta jardun kontrajarriak hartzen ditu: bi aldaretan otoitz egiten du, munduaren Askatzailearengan eta aztiaren kutunengan, biengan, du fedea, eta bere izatearen arazo iluna argitu gabe iristen da bere bizitzaren hondarrera.

Bidaiari frantsesak zalantzarako tarterik utzi gabe amaitu zuen Saginawko herritarren deskribapena: nahiz eta soilik hogeita hamar lagunek osaturiko komunitatea izan, nahiz eta natura basati berean bizi eta bizirauteko zailtasun berberak eduki, haien arteko aldeak oso handiak dira, harresi gaindiezinak kasik. Honela dio: “Giza familia handitik erbesteratutako kide batzuk basoaren eremu

izugarri zabal honetan elkartu dira. Behar berberak dituzte: elkarrekin borroka egin behar dute oihaneko basapiztien kontra, gosearen eta urtaroen gogortasunaren kontra. Hogeita hamar lagun baino ez dira, dena haien kontrakoa den basamortuaren erdian, eta, hala ere, gorrotozko eta mesfidantzazko begiradak baino ez dituzte batak bestearentzat. Larruazalaren kolorea, pobrezia edo oparotasuna, ezjakintasuna edo argitasuna direla medio, hierarkia apurtezinak sortu dira haien artean; nazioei, hezkuntzari eta jaiolekuari loturiko aurreiritzien eraginez, zatituta eta isolatuta bizi dira”.

Egin dezagun orain jauzi denboran, eta jo dezagun 1831. urteko Saginawko etxalde hartatik Ipar Amerikako gaur egungo edozein hiri handitara. Eta aldeira ditzagun garai hartan Tocquevillek pertsona-multzo hari buruz egindako deskribapena eta gizarte-ikertzaile talde batek 1998an *Cityscape* argitalpenaren zenbaki bat zabaltzeko idatzi zuen pasarte. Arraza eta etnia aldetik aniztasuna duten auzoei buruzkoa zen aldizkariaren zenbaki hura:

Arraza eta etnia aldetik aniztasuna duten hainbat auzo daude gurean, baina gure Nazioan hobekien gordetako sekretuetako bat da hori. Toki horiei buruz jardun beharrean, Ameriketako Estatu Batuetan arraza eta etnien artean gertatzen diren tirabiren berri ematen dute aldiro komunikabideek. Gure Nazioa etnia eta arraza aldetik aniztunago bihurtzen doan heinean eta XXI. mendera hurbildu ahala, gizarte-zientzialariek ikusten dute zatikatutako auzoen mosaiko bat (*patchwork*) sor daitekeela, baina, orobat, gure auzuneetan aniztasun handiagoa izateko aukera ere hor dagoela. *Aniztasuna* eta *kultura-aniztasuna* modako hitzak dira, baina haien eragin mesedegarriari buruzko gaur egungo eztabaidari erreparatuta, ezagun da ez dagoela adostasunik Ameriketako Estatu Batuetan arraza desberdinekoen arteko harremanen egoerari edo aurrerapausoei buruz. Elkarrizketa pribatuetan, iritziak publiko zabalera plazaratu gabe, nabarmena da aniztasunaren bideragarritasunari buruzko eszeptizismoa; bereziki, auzune aniztunen bideragarritasunari buruzkoa. (Neyden *et al.*, 1998: 1)

Hain gutxi aldatu ote dira gauzak bi mende eta erdiren buruan? Gogora dezagun, horren harira, Masseyk eta Dentonek zein esaldi idatzi zuten Ipar Amerikako hirietan bizileku aldetik gertatzen den bereizkeria iraunkorrari buruzko ikerketa goraiatu baten amaieran (1993: 236): “Ameriketako *apartheid*aren nagusitasuna behin betiko desagerraraztea erabakitzen ez dugun artean, ezin emango dugu aurrerapausorik herri edo nazio gisa”. Ipar Amerikako hiriak, herritar izatearen baldintza komun eta unibertsala zikinduko duen diferentziarik gabeko arragoa pribilegiatuak, porrot egin ote du? “Amerika osoan –salatu zuen duela hiru bosturteko Sorkinek–, hirien plangintzak bazterrerara utzi du bere betiko eginbeharra –komunitateak integratzea, alegia–, garapen selektiboa ekarri du, eta horrek areagotu egiten ditu diferentziak” (2004:12). Alabaina, hiriak antolatzeke modua baino ez ote da arazoa, edo sakonagoa da kontua? Bigarren ikuspegi horri heldu zion, itxuraz, Baumanek,

hirietan gertatzen ari den *mixofobia* gero eta handiagoaren kontra ohartarazi zuenean (2006: 32-33). “Aniztasunaren eta diferentziaren itsasoan berdintasunezko eta parekotasunezko uharteak bilatzeko joera” da mixofobia, Baumanen beraren hitzetan, eta, haren arabera, joera hori areagotuz joango da globalizazioaren aroko berezko kultura-aniztasuna ere areagotzen doan neurrian.

Eta, nolana ere, arazoa soilik Ipar Amerikakoa da, edo, hein handiagotan edo txikiagoan, hiri handi guztietara hedatutako egoeraz ari gara?

2004ko otsailean, Erresuma Batuko *Prospect* hilabetekariak (laborismo berriaren soka ideologikoa da agerkaria) David Goodhart editorearen artikulu bat plazaratu zuen, baita eztabaida bizia piztu ere argitalpenaren ondotik. “Too diverse?” (Aniztunegia?) zen artikuluaren izenburua, eta zera galdetzen zuen: Erresuma Batua –gizarte “oso aniztuna”, Vertovecen arabera (2006)– ez ote da aniztunegi bihurtu bai gizarte on bat eta bai ongizate-estatu borondatetsu bat eraikitzeko aukerek elkarrekiko dituzten betekizunei eusteko? David Williets politikari kontserbadoreak ongizate-estatuaren erreformari buruzko eztabaida batean adierazitako ideia bati buruz gogoeta egin ondotik mamitu zuen Goodhartek galdera hori, editoreak berak azaldutakoaren arabera. Eztabaida hura ere aldizkariak berak antolatu zuen 1998ko martxoan. Solasaldi hartan, Willietsek *dilema progresista* zeritzona jarri zuen mahaian, termino hauetan mamituta: 1) Pertsona gehienak prest daude ongizate-sistema publikoari euste aldera beren diru-sarreren zati bat emateko, soilik sistema horrek beren antzekoak direnei eta egunen batean berek izan ditzaketen antzeko arazoak dituztenei mesede egiten diela pentsatzen dutelako. 2) Gizarteak balio eta bizimolde aldetik aniztunago bihurtzen diren heinean, gero eta zailagoa da elkartasunezko ekarpen horren legitimitatea justifikatzea. 3) Amerika *versus* Suedia parez pare jartzea da: Suediakoaren pareko ongizate-sistema publikoa izatekotan, ezinbestekoa da gizarte oso homogeneoa izatea eta balioak hein handi batean partekatzea². 4) Arazo honetan datza dilema progresista: progresistek asko balioesten dituzte bai aniztasuna eta bai elkartasuna, baina jabetzen dira aurrenekoa babesteak ahuldu egiten dutela bigarrenari eusteko aukera.

²Lan honetan ez dugu arazo garrantzitsu hori jorratuko. Nolanahi ere, ikertzaile askok jarri dute arreta gaien, eta haien ikuskerak ez datoz beti bat. Berriki, Sweden's Globalisation Council erakundeak babes-tutako txosten batek gai hori bera izan du aztergai (Legrain, 2008). Suediako Gobernuak berak babesten du erakunde hori, eta globalizazioak herrialdeari dakartzkion erronken gainean gogoeta eta eztabaida sustatzea du helburu. Txostenaren ondorioa nahikari on bat da finean: “Suedia aniztunago batek ez luke zertan ongizate-estatuarekiko jarrera amerikarra hartu. Ez dago horretarako arrazoirik [...] Hautesleek konturatu behar dute migrazioa aukera bat dela, ez mehatxua”. Dilema progresistaren harira, ikus baita ere: Pearce (2004), Newton (2007), Rothstein (2008). T.H. Marshallen *Ciudadanía y clase social* (Herritarrak eta klase soziala) klasikoaren 1992ko edizioaren gainean Tom Bottomorek idatzirik saiakera osagarrian aipatzen da kultura- eta etnia-aniztasunaren hazkundera galdera berriak sortzen dizkiela herritarrei; izan ere, Marshallék herritarren bilakaerari buruzko ikerketa mamitu zuenean –Ingalaterra Bigarren Mundu Gerratik atera zenean, alegia–, gizarte nahiko homogeneoa zen artean. (Marshall eta Bottomore, 1998: 100-107)

Goodharten arabera, aspaldiko galdera hura –gizartea bera bezain aspaldikoa– beste modu batera egitea baino ez da elkartasunaren eta aniztasunaren arteko gatazkaz jardutea: “Nor da nire anaia, elkarrekiko betebeharrak partekatzen ditudan hori?”³. *Prospect* aldizkariko editorearen iritziz, gehienek nahiago dute betebeharrak horiek “kidekoekin” (*our own kind*) partekatu; horrek, nolahi ere, ez du ekartzen nahitaz arrotzekiko kontrako jarrera hartzea. Orobat, ikuspegi hori ez litzateke kontrajarriko herritartasunari buruzko ideiarekin: “Herritartasunari buruzko ideia modernoa –Goodharten hitzetan– elkartasunaren eta aniztasunaren arteko tirabira baretzeko modu bat da. Herritartasuna ez da kontzeptu etniko bat, *blood-and-soil* kontzeptu bat⁴, ideia politiko abstraktu bat baizik, eta, ideia horren arabera, eremu nazional jakin batean bizi direnek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Baina ez da eskubide eta betekizunei buruzko ideia abstraktu soil bat; gutako gehienontzat, herritartasuna hautatu ezin den zerbait da, jaiotzetik zerbait, historia, esperientzia eta, sarri askotan, sufrimendu partekatu batetik sortutakoa”. Eta, gogoeta amaitzeko, bere egin zuen Alan Wolfe idazle estatubatuarren ideia bat: “Herritar bakoitzaren atzean hilerri bat dago”. Planteamendu horiek aintzat harturik, ez da harrizkoa Goodhartek bere artikuluari eman zion errematea: “Jendeak bere familien eta komunitateen alde egingo du beti; liberalismo errealista batek saiatu behar du komunitatearen definizio behar bezain zabala egiten, hor sartzeko jatorri ugaritako jendea, baina ez irekiegia ere, zentzurik gabeko zerbait bihurtzeko bezain irekia, alegia”.

Artikuluak berehala jaso zituen batzuen eta besteen erantzunak. Goodhartek berak haietako batzuk aipatu zituen aldizkariaren apirileko zenbakian. Kritiken aurrean, Goodhartek eztabaida zabaltzeko asmoari eutsi zion, eskala handiko immigrazioak Erresuma Batuko gizarteari dakarzkion mesede eta kalteen gainean; era horretara, aniztasuna “erlijio-fede” baten pareko jo izan dutenei aurre egin nahi izan zien *Prospect*eko editoreak. Eta bigarren artikulua hori ere lehenaren tankeran amaitu zuen, modu grafikoagoan nahi bada: “*Gemeinschaft* (komunitate) gehiegi ziztatzen bada estatuaren muinean, Hitlerrengana irits gaitzke. Baina gure gizarteak sostengatzeko, *Gemeinschaft* gutxiegiarekin ere arazoak izango ditugu: anomia-arazoak, konfiantza gutxitzea eta espazio publikoa galtzea”.

Bistan da: kontua ez da Ipar Amerikara mugatzen. Espainiara ere iritsi da, nahiz eta Espainian emandako erantzunak Goodharten erantzunetik lekutu hein handi batean. Gizarteek funtzionatzeko behar duten komunitate-“dosia” dela-

³Galdera horrek ongizate-estatu bultzatzeko eta hari eusteko duen garrantziari buruz, ikusi Bauman (2001: 5. kap.).

⁴“Odola eta arima” *Blut und Boden* germaniarri eginiko erreferentzia. Jatorrian arrazari loturiko nazionalismo erromantikoko baten adierazpidea, gerora nazismoak bere egina.

eta sortu dira, hain zuzen, aldeak. Salvador Ginerrek aipatzen duen moduan, duintasuna eta etika dakarren neurrian jaso dezake eta jaso behar du komunitateak errespetua; alabaina, “komunitateak eremu publikoa inbadituz gero, hor-tik ezin daiteke ezer onik etorri gaur egun behar dugun eremu publiko-motarentzat”. Eta hala amaitzen du: “Tokiko gobernuak (sarri askotan hirikoa izan ohi da, eta herritar askorengan du eragina) konturatu behar du tribuak desegiteko garai bateko lana, Grezia argitsuko hiri jonikoek behiala abiatu zuten hura, berriro ere hirien erronka eta eginkizun nagusietakoa bihurtu dela. Batez ere gaur egungo gizaki guztiek, herritar bihurturik, merezi duten bizileku duina bilakatu nahi badute” (Giner, 2004: 41).

Alabaina, bada herritar-energiarik, herritarren kulturarik, giza kapital barne-biltzailerik, erronka horri aurre egiteko? Eta herritarren giza kapital ezinbesteko hori higadura azkarra eta sakona jasaten ariko balitz, hain zuzen aniztasuna areagotzen edo hiriguneetan agerikoago egiten ari den heinean? Aniztasunaren ametsak, halaxe gertatu baitzen arrazoiaren ametsarekin ere, “urrunegi” eramaten denean gutxienez, munstroak sortzen ote ditu ausaz? Gizarte-lokarriak bereiztearen eta desegitearen ondorioz sortutako munstroak, alegia?

BESTE EGIA DESEROSO BAT?

Arazo horrixek heldu zion Robert D. Putnamek 2007ko “*E Pluribus Unum: Diversity and Community in the Twenty-first Century*” artikuluan⁵. Artikuluak eztabaida sutua piztu du, eta muga akademikoak gainditu eta komunikabide handietaraino iritsi da. *The Boston Globe* egunkarian argitaratutako artikulua luze batek adierazten du Putnamek harrotutako erantzun askoren doinua. Idatziaren izenburua eta azpititulua honako hauek dira: “Aniztasunaren eragozpena. Harvardeko zientzialari politiko baten aurkikuntzaren arabera, aniztasunak herritarren bizimodua urratzen du. Zer gertatzen da jakintsu liberal batek egia deseroso bat azalerraten duenean?” (Jonas, 2007).

Hasiera-hasieratik, Putnamen artikulua muga akademikoak gainditu zituen, eta eztabaida publiko bizia harrotu zuen. Blogosferan, ugariak dira eztabaidak⁶. Kontserbadoreek, migrazio-politikak gogortzearen aldekoek, argudio erabakigarritzat hartu dute –azken batean, liberal batek mamitua da– beren ikuskera babesteko⁷.

⁵Aurrerantzean, *EPU* esango diogu artikulua horri. Gogoan izan behar da *Solo en la bolera (Bakarrik bolatokia)* liburua Putnamek ez duela esaten etnia-aniztasunaren aldagaiek herritarren konpromisoaren eta giza kapitalaren gainbehera eragin nabarmena izan duenik (2002: 251). Beste faktore batzuk aipatzen ditu: belaunaldi-aldaketa (“belaunaldi zibiko luzearen gainbehera”); telebista eta bestelako entretenimendu elektronikoen bizimoduan eta ohituretan izan duten inpaktua; hiriaren kanporanzko-hazkundera eta horrek etxetik lanera eta lanetik etxera joateko eskatzen duen denbora, baita antolaketaren urbano horrek “hiriaren sakabanaketa dela medio herritarrei dakarkien zigorra” ere; eta bi ezkontideak lan-merkatuan sartu izanak denbora eta diru aldetik ekarri dituen presioak (Putnam, 2002: 253-372; laburpena orrialde hauetan: 373-383).

⁶Ikusi, adibidez: http://www.sccr.org/NL/Newsletter_F07/index.html ; http://www.ssireview.org/opinion/entry/notes_on_robert_putnams_diversity_and_community_in_the_twenty_first_century/ ; <http://www.gifthumb.org/2007/08/does-diversity-.html> ; <http://socialcapital.wordpress.com/category/e-pluribus-unum/> ; <http://apoxonbothyourhouses.blogspot.com/2009/02/why-diversity-destroys-social-capital.html> ; http://creativeclass.com/creative_class/207/06/17/diversity-and-social-capital/

⁷ Ikusi, horren harira, Patrick J. Buchananen eta Steve Sailerren iritzi su-piztaileak www.vdare.com web-orrian. Buchananez idatzia da *State of Emergency: The Third World Invasion and Conquest of America* (2006) liburua. Ikusi, halaber: Buchanan (2007), Sailer (2007), Wilson (2007), Richwine (2009).

American Renaissance aldizkariaren azalean argitaratutako artikulu batean, Jared Taylorrek ironiaz idatzi zuen bere iritziz aniztasunaren eta gizarte-konfiantzaren arteko oreka berreskuratze aldera Putnamek plazaratutako asmo oneko proposamenak –“Putnam irakasleak ohiko Pernandoren egiak (*bromides*) botaz amaitzen du bere artikulua”–; haien artean, eragin-trukea eta elkar ulertzea bultzatzeko premia: “Eman arreta 'eragin-truke' eta 'elkar ulertze' hitzei. Horren guztiaren helburua ez da etorkinak amerikar bihurtzea [...] Gu guztiok, beste modu batera esanda, pixka bat haitiar, pixka bat txinatar, nahiko beltz eta mexikar bihurtu beharko dugu. Seguru asko, gaurdanik praktikak egiten hasi beharko dugu pixka bat irakiar bihurtzeko, inondik ere gure tropei etxerako itzuleran jarraituko dieten 'aliatuak' prestatzeko” (Taylor, 2007).

Espanian ere, alarmaren eta pozaren artean jaso da Putnamen “egia deserosoa”. “Etnia-aniztasuna txarra da (gizartearen) osasunerako”; horra artikulugile batek, “Putnam eskandalua” zela eta, *El Manifiesto* aldizkarian argitaratutako iruzkinari jarritako izenburua (Malaparte, 2007). ABC egunkariak ere argitara eman zuen auziaren gaineko artikuluren bat. Haietako baten pasartea da honako hau: “Arrazen arragoa (*melting pot*) mito bat da. Etnia-aniztasunak areagotu egiten du komunitate baten barneko mesfidantza: bai komunitateko gizabanakoen artekoa eta bai banako horien eta agintearen artekoa. Eta, trukeen aberastasuna areagotu beharrean, isolamendu handiagoa dakar [...] Horra hor politikoki ez-zuzenaren hizketa-modua immigrazioaren gaian doktrina irenisten muinera zuzenduta. Aurrekoa aldarrikatzen duena ez da, ordea, Europako xenofobiaren izartegiko azken izar distiratsua, Vlaams Belang alderdi flandestarra, alegia; ez eta Le Pen eta Jörg Haider adiskide zaharrak ere. Aitzitik, Harvardeko Unibertsitateko Robert Putnamek zuzendutako ikerketa baten ondorioak dira” (San Martín, 2006). “Ondorioak desafio egiten dio zuzenean Ipar Amerikako –baita Espainiako ere– progresismoaren ideia maiteari: 'gure aniztasuna da gure indarra' delakoari, hain zuzen”, idatzi zuen beste batek (Arroyo, 2007).

Erantzun gehienek alarma-doinua ikusirik, ez da harrizkoa Putnami “kultura-apokalipsiaren” generora bildu izana leporatzea (Hallberg & Lund, 2005). Alabaina, ez da hori, ikusiko dugunez, Putnamen asmoa. Horren harira, hor da Anthony Giddensek plazaratutako ikuskera leunagoa. Giddensek, Putnamen argudioekin guztiz bat etorri ez arren, *EPU*ren arrastoan etor daitezkeen etorkizuneko ikerketen ildoak “politika aldetik zuzentzat” hartzeko tentazioa gaitzetsi du: “Modu zabalean eztabaidatu behar da aniztasunak elkartasuna arriskuan jartzen ote duen, eta ez arrazoi ideologikoak direla medio saihestu” (Giddens, 2007a).

Hain zuzen, irudi du Putnam bera sentitu dela deserosoen bere lanak harrotu dituen erantzunak direla eta. Ikerketaren irakurketa partzial eta presazkoaren ondorioztat jo ditu Putnamek erantzun horiek (Lloyd, 2006; Goldsmith, 2006). Eta egia da Putnamek ahaleginak eta bi egin dituela bere ikerketan jasotako aniztasunaren alderdi onuragarriena azpimarratzeko (Bunting, 2007b; *The American Interest*, 2008; Putnam, 2009).

Nolanahi dela ere, zer da Putnamek gizarte aniztasunaren edo heterogeneotasunaren eta giza kapitalaren indarraren arteko harremanari (negatiboa, epe ertainera gutxienez) buruz aurkitu bide duen hori? Azken batean, Giddensek aipatzen duen moduan (2007b), oso litekeena da hartu-eman hori gertatzea: “Finean –dio Giddensek–, etxetik hurbilago sentitzen gara gure kideko diren pertsonekin”. Eta Putnamena ez da izan, ezta gutxiago ere, gai hori antzeko terminoetan jorratzen duen lehen lan zientifikoa (Knack eta Keefer, 1997; Alesina eta La Ferrara, 2000, 2002; Coffé eta Greys, 2006; Leigh, 2006). Zein berritasun ekarri du, hortaz, Putnamen lanak?

ETNIA-ANIZTASUNA ETA GIZA KAPITALA: ARE ETA BAKARTUAGO BOLATOKIAN?

Putnamek ideia hauxe hartu zuen abiapuntu: edozein gizarte modernoren bila-kaerari buruz izan daitekeen ziurtasun handiena da onartzea gizarte hori gero eta aniztunagoa izango dela. Hain zuzen ere, etnia-aniztasuna nabarmen areagotuko da gizarte moderno guztietan datozen hamarkadetan, hein batean immigrazioaren eraginez. Ideia horri dagokionez, funtsezkoa da zehaztapen bat egitea: hein batean migrazio-mugimenduen hedatzearen eraginez aniztasuna haztea saihestezintzat ez ezik, “epe luzera desiragarritzat” ere jotzen du Putnamek. Ikusiko dugunez, epe luzerako erreferentzia horrek berebiziko garrantzia du.

Gizarte gero eta aniztunago eta kulturantzunagoetara jotzeak gizarte horien giza kapitalean zer ondorio duen arretaz ikertu nahi du Putnamek. Ikerketa horren helburuak finkatzeko, *giza kapitala* kontzeptuaren definizio sinpletua baina eraginkorra hautatzen du: gizarte-sareak eta sare horiei loturiko elkarrekotasun- eta konfiantza-arauak⁸. Bada, haren arrazoitzearen muina bi baieztapen hauetan laburbiltzen da:

- a) Lehenbizikoa, arestian aipatutakoa: etnia-aniztasuna areagotu egingo da gizarte moderno guztietan, hein handi batean immigrazioaren eraginez, eta areagotze hori, saihestezina izateaz gain, desiragarria ere bada epe luzera⁹.

⁸Gizarte-konfiantza eta *giza kapitala* ez dira zehazki gauza bera, ez behintzat kontzeptu horiekin gehien identifikatzen diren bi egile estatubatuarrek –Fukuyamak (1998, 2000) eta Putnamek (2002, 2003), hurrenez hurren– hasieran azaldu zituzten moduan. Nolanahi ere, lan honen helburuei begira onartzen dugu bi kontzeptuen artean eta aipatutako egile bakoitzak eginiko teorizazioetan badirela ideia komunak kontzeptu bat ez bada bestea erabiltzeko edo modu osagarrian erabiltzeko: ideia horien artean dira gizarte-sare trinkoak, gizarte-interakzioa, onartutako eta betetako arauak, balio partekatutakoak, elkarrekikotasuna...

⁹Bere artikulua 139-141 orrialdeetan, Putnamek ebidentzia enpiriko ugari bidez ilustratzen du immigrazioari loturiko aniztasun horrek zer onura dakarren.

b) Bigarrena, Putnamen ikerketaren muina: epe motzera eta ertainera, gizarte-elkartasunarentzako erronka diraimmigrazioa eta etnia-aniztasuna, eta, orobat, herrialdeen giza kapitala eragozten dute.

Horrenbestez, Putnamen iritzia da immigrazioaren erronkari arrakastaz aurre egin eta etnia-aniztasunaren ondorio txarrenak saihestu nahi dituzten gizarteek ahalegina egin beharko dutela “Gu” deritzonaren bestelako zentzu bat sortzeko, zentzu zabalagoan. *EPU* irakurri duten asko, ordea, epe motzak baino ez ditu kezkatzen, eta, haien iritziz, arestian ikusi dugun eran, aniztasuna, kultura-aniztasun “onaren” ikuspegi aurrerakoitik hartzen denean, identitateari loturiko muturreko jarreraren Troiako zaldi bihurtzen da (Taguieff, 2008).

Haren lanaren gainean sortu diren eztabaidak eztabaida, zein planteamendu aurkezten du Putnamek *EPU* artikuluan?

3

KONTAKTUA, GATAZKA EDO UZKURTZEA?

Putnami jarraituz, gizarte-zientziak bi ikuspegi guztiz kontrajarriren artean aritu dira dantzan aniztasunak gizarte-lokarrietan duen eragina aztertzerakoan. Lehen ikuspegiak, “kontaktuaren hipotesia” (*contact hipótesis*) deritzonak, arrazoitzen du aniztasunak, azkenerako, etnien arteko tolerantzia eta gizarte-elkartasuna sendotzen duela. Gu bezalakoak ez diren pertsonekin hartu-eman handiagoa dugun heinean, hasierako zalantzak eta ezjakintasuna gainditzen ditugu, eta, azkenerako, konfiantza gero eta handiagoa dugu haiengan. Horren harira, hor da Samuel A. Stoufferrek eta beste batzuek eginiko *The American Soldier* ikerketa klasikoa (1949), Bigarren Mundu Gerran borrokatu ziren soldadu ipar amerikarrei buruzkoa. Ikerketa horren ondorioa da soldadu beltzen ondoan zerbitzatu zutenak arraza-integrazioaren aldekoagoak zirela haien ondoan zerbitzatu ez zutenak baino. Aurrerakoientzat “oso erakargarria” izan daitekeen ikuspegiaren eredu kanonikotzat jo zuen Putnamek soldaduei buruzko ikerketa eta ondorioa.

Beste ikuspegia, aurrekoaren guztiz kontrakoa, “gatazkaren teoria” (*conflict theory*) deritzona da. Ikuspegi horren arabera, aniztasunak, hainbat arrazoi tar-teko –batez ere urritzat jotzen diren baliabideak lortzeko lehia–, mesfidantza bultzatzen du taldetik kanpo, eta, aldi berean, elkartasuna areagotzen talde barnean. Putnamek agerian uzten du gatazkaren ikuspegia *teoria* batean mamitzen dela eta kontaktuarena, berriz, *hipotesi* soilean, eta bien arteko aldea azpimarratzen du. Eta, horren harira, nazioarteko hogeita hamarretik gora ikerketa aurkezten ditu erakusteko etnien heterogeneotasuna areagotzeak berekin dakarrela gizartean konfiantza-maila gutxitzea, talde-kohesioa ahultzea eta lankidetzajarrerak nagusitu beharrean lehia-estrategiak nagusitzea.

Putnamen aburuz, ordea, bi ikuspegi guztiz antitetiko horiek bat datoz funtsezko uste batean, eta, haren iritziz, uste hori erabat okerra da: taldetik kanpoko eta talde barneko konfiantza modu negatiboan elkarri lotuta ez ezik –batean gehiago bada, bestean gutxiago, alegia– haien harremanen batuketaren emaitza hutsa izango litzatekeela baiesten duen ideia; haietako batean konfiantza

areagotzen bada halabeharrez bestean modu korrelatiboan murrizten delako ideia, hain zuzen. Putnamen irudiko, uste hori ontzat eman izan da eta ez da enpirikoki ikertu; beraz, zehaztapenak egin behar dira *uzkurtze-teoria* (*constrict theory*) deritzona oinarri hartuta. Hirugarren ikuspegi horren arabera, gerta liteke biztanlerian etnia-aniztasuna areagotzeak *bi elkartasun-motak* murriztea, bai taldetik kanpokoa eta bai taldearen barnekoa. Beste modu batera esanda, Putnamek planteatzen du biztanlerian etnia-heterogeneotasuna areagotzeak bi giza kapitalak higa ditzakeela: bai giza kapital “zubia” edo inklusiboa (*bridging social capital*), gure aldean desberdinak diren pertsonekin harremanetan jartzan gaituena, eta bai giza kapital “loteslea” edo eskusiboa, gure kidekoekin indarrez lotzen gaituena baina desberdinengandik bereizten gaituena¹⁰.

Etnia-aniztasuna eta gizarte-elkartasuna: hiru ikuspegi		
	Taldearen barneko elkartasuna	Taldetik kanpoko elkartasuna
<i>Kontaktua</i>	Ez du eraginik jasotzen	Areagotu egiten da
<i>Gatazka</i>	Areagotu egiten da	Murriztu egiten da
<i>Uzkurtzea</i>	Murriztu egiten da	Murriztu egiten da

Iturria: Artikulu honen egileak landua, Putnam oinarri hartuta (2007)

Putnamen aburuz, hirugarren ikuspegi horrek, *uzkurtze-teoriak*, esplikatzen du hobekien zer gertatzen den epe motzera eta ertainera etnia-aniztasuna areagotzen den biztanlerietan.

2000. urtean egindako asmo handiko ikerketa konplexu batean, *Social Capital Community Benchmark Survey* zeritzonean, oinarritu zuen Putnamek bere gogoeta. Ikerketa hura beste lan eta datu batzuekin osatu zuen, urte hartako Nazio Erroldako datuak barne zirela¹¹. Hona hemen ikerketa hark utzitako ondorio nagusiak:

¹⁰Eskerrak eman beharrea naiz CISEko 143-09-A ebaluatzaile anonimoari, lehen aurkezpenean irakurri eta kontzeptu horiei eginiko zuzenketengatik. Lehen aurkezpenean, bonding social capital giza kapital “harresia” itzuli nuen, eta, halaxe da, gramatika aldetik itzulpena ez da zuzena, bond hitzak lokarria edo lotura esan nahi baitu, eta harresiari edo mugari bound esaten zaio. Egia esan, ez zen bi hitzen arteko nahasketa izan, baizik eta giza kapital “zubiari” indar gehiagoz kontrajartzeko modua. Gramatikarekiko ez ezik Putnamen laneko terminoen gaztelaniazko itzulpenarekiko errespetuz, moldatu egin dut hasierako idatzi hura. Nolanahi ere, jatorrizko ideiarri berriro helduz, garrantzitsua iruditzen zait ohartaraztea lokarri integratzaileak (bonds) zein erraz bihurtzen diren muga edo harresi baztertzailak (bounds). Uste dut horixe bera adierazi nahi zuela Putnamek ere “giza kapitalaren alde ilunaren” gainean gogoeta egin zuenean eta honako hau idatzi zuenean: “Sarritan, giza kapitala errazago sortzen da zerbaiten edo norbaiten kontra. Anaitasuna batez ere talde homogeneoen baitan da berezkoa” (2002: 488).

¹¹Aurkezten ari garen artikulua 144-146 orrialdeak kontsulta daitezke ikerketaren metodologiari buruzko oinarritzko ezagueraz izateko.

- 1) Ikerketak erakusten du harreman positibo indartsua dagoela arraza barneko konfiantzaren eta etnia-homogeneotasunaren artean. Gure inguruan zenbat eta etnia-aniztasun handiagoa izan, orduan eta konfiantza txikiagoa agertzen dugu etnia horiekiko. Badirudi lehen aurkikuntza horrek gatazkaren teoriari arrazoi ematen diola.
- 2) Halaxe egiten du bigarren aurkikuntzak ere: etnia-aniztasun handiena duten komunitateetan bizilagunekiko agertutako konfiantza, oro har, nabarmen txikiagoa da etnia aldetik homogeneoagoak diren komunitateetan baino. Adibidez: Los Angelesen eta San Franciscon –hiri oso heterogeneoak bi biak– herritarren %30ek dio konfiantza “handia” duela bizilagunengan, eta Ipar eta Hego Dakotako komunitate oso homogeneotan, berriz, %70 eta 80 bitartean dira bizilagunekiko konfiantza handia agertzen dutenak.
- 3) Alabaina, bada hirugarren aurkikuntza bat. Gatazkaren teoriatik aldendu eta *uzkurtze-teoriaren* lehen oinarria jartzen du aurkikuntza horrek: talde barneko konfiantza txikiagoa da biztanleria aniztunenetan. Biztanleria horietan, Putnamek azpimarratzen duen moduan, “amerikarrek mesfidantza dute, beren kideko ez direnekiko ez ezik, baita beren kidekoekiko ere” (148. or).

Hortik Putnamen ondorioa: “Ez gatazkaren teoria eta ez kontaktuaren teoria ez datoz bat Amerika garaikideko gizarte-egoerarekin. Aniztasunak, itxuraz, talde barnekoa/talde kanpokoak zatiketa ez, baizik eta anomia edo gizarte-isolamendua ekartzen du” (148-149). Kaleko hizkeran esanda, etnia aldetik aniztunak diren lekuetan bizi direnek “kikiltzera” (*bunker down*) jotzen dute, beren baitan babestera (dortokak oskolean nola).

Atzera egite edo kikiltze horren ondorioz, Putnamek deskribaturiko panoramak aniztasunaren eraginez guztiz suntsitutako auzuneak islatzen ditu. Aniztasun handieneko eremuetan inkesta erantzun zutenek zera adierazi zuten:

- Konfiantza txikiagoa tokiko gobernuarengan, tokiko buruzagiengan eta tokiko komunikabideetan.
- Konfiantza txikiagoa politikoki eragiteko haien ahalmenean.
- Bozkatzera gutxiago joan izana, baina politikarekiko interes eta ezagutza handiagoa eta parte-hartze handiagoa protestako martxetan eta gizarte-erreformako taldeetan.
- Ekintza kolektiboko auziak konpontze aldera besteen laguntza jasotzeko itxaropen txikiagoa.

- Komunitateko proiektuetan lan egiteko, karitatezko dohaintzak egiteko edota boluntario-jarduerak egiteko prestutasun txikiagoa.
- Adiskide min eta konfiantzazko gutxiago.
- Zoriontasun-sentimendu gutxiago eta bizitza-kalitateari buruzko irudipen negatiboagoa.
- Telebista ikusten denbora gehiago eta adostasun handiagoa “telebista da nire entretenimendu-modu nagusia” baieztapenarekin.

Hortik dator Putnamen ondorioa: ezin da esan aniztasunak harreman txarrak sortzen dituenik etnien artean, baina “aniztasunak, epe motzera bederen, guztiok barnean daramagun dortoka azaleratzen du” (151. or.).

4

PUTNAM PUTNAMI BURUZ: ANALISIA BERA ALDERANTZIKATZEN

Putnamen artikulua, hain su-piztailea izanik, ezin pasatu zen oharkabean, eta, agerian geratu denez, eztabaida sutsua piztu du komunikabideetan. Atal honetan, *EPU* artikulua inguruan sortutako eztabaida akademikoari leioa zabalduko diogu; baina, harekin bat ez datozenei ahotsa eman aurretik, entzun dezagun Putnam bera, Karl Popperri jarraituz, bere analisia alderantzizatzeko ariketa egiten.

Hain zuzen, artikulua azken zatian, bere ikerketari eta ondorioei egin dakizkikeen hainbat eragozpen planteatzen ditu Putnamek. Honela labur daitezke eragozpen horiek:

- 1) Analisirako hautatu den unitatea –auzunea– egokia da? Zer gertatuko litzateke analisia norbanakoen mailara jaitsiko bagenu, etnien arabera finkaturiko talde horien baitan banakako diferentziak ekar ditzaketen hainbat aldagai kontuan harturik, hala nola adina, sexua, hezkuntza, joera ideologikoa, etab.?
- 2) Eta, komunitatearen mailari eutsiz gero ere, ez al dago alde handia auzune batzuen eta beste batzuen artean? Batzuk aberatsagoak dira, besteak txiroagoak, batzuek kriminalitate-tasa handiagoa dute besteek baino, batzuek elkarre-sare zabalagoa besteek baino... Azken ondorioa aldatuko litzateke auzuneen arteko alde horiek kontuan hartuz gero?
- 3) Aniztasunean bertan ere aldea egon daiteke, oso ehuneko txikietatik oso handietara. Etnia-aniztasunaren areagotze guztiek eragin bera dute herritarren konfiantzan eta giza kapitalean, edo atalase batzuetatik gora hasten da eragin hori nabaritzen edo azpimarratzen?
- 4) Azkenik, Ameriketako Estatu Batuetako gaur egungo etnia-aniztasuna bi prozesu historiko oso bestelakoren ondorioa da: alde batetik, Afrikatik ekarri zituzten esklaboen trafikoa XVII. eta XVIII. mendeetan; eta, bestetik,

Latinoamerikako eta Asiako biztanleen immigrazioa XX. eta XXI. mendeetan. Bi etorkin-taldeak modu desberdinean banatu dira lurraldean: afro-amerikarrak hego-ekialdean eta iparraldeko hiriguneetan kokatu dira, eta latinoak eta Asiatik etorritako amerikarrak hego-mendebaldean eta mendebaldean bildu dira batez ere. Immigrazio-mota baten edo bestearen arabera-ko aniztasun-motek eragin desberdina ote dute ausaz giza kapitalean?

Erabiltzen dituen argudioetan sartu gabe, Putnamen ondorioa da balizko eragozpen horietako bakar batek ere ez diola hasierako baieztapenaren muinari eragiten; hau da, etnia-aniztasunak, bere horretan, uzkuertze soziala eragiten duelako usteari. Zehazki:

1. Aldagai pertsonalei dagokienez, nahiz eta batzuk *bitarteko aldagaitzat* har daitezkeen, aniztasunak gizartearen konfiantzan eta giza kapitalean duen eraginaren intentsitatea aldatzen dutenez, aldagai guztiek eragin bera dute. 1920ko hamarkadan eta 1970eko hamarkadan jaiotako kohorteak alderatuta ere (bi garai horietan guztiz bestela planteatu zen aniztasunaren gaia: modu militantean eta negatiboan 1920ko hamarkadan, eta forma aldetik gutxienez modu positiboan 1970eko hamarkadan), Putnamek berresten du bai batzuek eta bai besteek antzeko mesfidantza agertu zutela aniztasunarekiko.
2. Gauza bera esan daiteke auzune batzuk eta besteak bereizten dituzten ezaugarriak aintzat hartuz gero: “Txirotasunean *pareko* diren bi auzune (edo aberastasunean *pareko* diren beste bi) edo krimenaren *pareko* eragina pairatzen dutenak (edo segurtasunean *pareko* direnak) alderatuta ere, etnia-aniztasuna bizilagunen konfiantza txikiagoari loturik agertzen da”. Aniztasunak berak higitzen du herritarren konfiantza, eta ez auzunearen ezaugarri jakinek. Putnamen beraren hitzetan: “Aniztasunak auzotarren konfiantzan duen eraginari erreparatuta, %7ko pobrezia-tasa duen ingurune batean eta %23koa duen beste batean bizitzearen artekoa bezain handia da Bismarcken, Ipar Dakotan (ingurune oso homogeneoa), bizitzearen eta Los Angelesen (ingurune oso aniztuna) bizitzearen arteko aldea, edo biztanleen %36 goi-graduatuak diren ingurune batean eta bakar bat ere ez duen beste batean bizitzearen artekoa bezain handia” (153. or). Itxuraz, ekonomia aldetik auzune batean egon daitezkeen desoreka bera ere ez da aldagai garrantzitsua Putnamen analisisian: “Aniztasunak uzkuertzea, nor bere baitara biltzea (*bunkering*), sortzen duelako aurkikuntza nagusi hori berdin gertatzen da desoreka ekonomiko handiak dituzten auzuneetan eta nahiko *pareko*ak direnetan. Desoreka ekonomikoak garrantzi handia du, baina ez du etnia-aniztasunak giza kapitalean sortzen duen adinako eraginik sortzen, areagotzen edo leuntzen” (157. or).

3. Etnia-aniztasunak izan dezakeen linealtasunari dagokionez (hau da, biztanlerian etorkinen %0 eta %5 bitarteko hazkundeak, %10 eta %15 artekoak edo %47,4 eta %52,5 artekoak baino eragin handiagoa izateko aukerari dagokionez), Putnamek haxe baino ez dio: bere analisisetan ez dutela ebidentzia enpirikorik aurkitu aniztasunak izan ditzakeen balizko eragin ez-linealei buruz.
4. Azkenik, etorkin-kolektiboen araberrako aniztasun-moduei dagokienez eta talde horien artean gerta daitezkeen eragin-trukeei dagokienez –zer eragin izan dezakete bizilagun latinoek beltzek asiarrekiko izan dezaketen konfiantzan?– Putnamek onartzen du sakondu beharra dagoela ikuspegi horretan, baina hasierako iritziari eusten dio: gaur-gaurkoz, bere lanak ez du erakutsi desegregazio-jardun horrek bere oinarritzko tesia ezbaian jarriko duen aztarnarik.

Horra Putnamek berak bere ikerketaz egiten duen defentsa. Baina, arestian genioenez, bere analisiak eztabaida bizia harrotu du, eta gutxienez dozena erdi egile edota ikertzaile-talde parte hartzen ari dira eztabaida horretan. Zein da eztabaida horren emaitza?

Ameriketako Estatu Batuetan, komunikabideetan eta interneteko orrialdeetan sortu den eztabaidaren oso atzetik doa eztabaida akademikoa. *Housing Policy* agerkariak, Putnamen lanari oihartzun eginez, bi iritzi kontrajarri plazaratu ditu. Alde batetik, Dawkinsena (2008), eta, bestetik, Briggssena. Dawkinsek auzitan jartzen ditu Putnamen aurkikuntzak, uste duelako haren ikerketak arazo handiak dituela metodologia aldetik. Briggsek, aldiz, ondorioztatzen du, ausazko metodologia-zehaztapenen gaitetik, Putnamen aurkikuntzak zuzenak direla funtsean, eta planteatzen duten erronkaren pareko erantzuna eman behar zaie. *National Civic Review* aldizkariak ere zenbaki berezia eskaini dio eztabaidari (Putnam *et al.*, 2009). Alde horretatik, tamalez, Rodney E. Herok ezin izan du *EPU* artikulua bere gaineko eztabaida bere azken liburuan jaso (2007); izan ere, bi-biak, Putnamen artikulua eta Heroren liburua, bateratsu argitaratu ziren. Zain geratu beharko dugu, beraz. Izan ere, AEBetako politikan eta gizartean arrazaren dimentsioa ikertu duen aditu nabarmenenetako bat da Hero, Notre Dameko Unibertsitateko irakaslea, eta, azken liburu horretan, hain zuzen, auzitan jartzen ditu giza kapitalari buruzko teoriak, ez dituztelako behar den moduan jasotzen arrazari eta etnizitateari buruzko alderdiak¹².

¹²Herok gogorarazten du zer-nolako paradoxa den giza kapitalari buruzko literaturak “oso zibikotzat” (Putnam, 1996, 2002) jo izan zuen garaian –hau da, XX. mendearen hasieratik 1970eko hamarkadaren hasierara arteko epean– Ameriketako Estatu Batuetan arraza-bereizkeria eta beste bazterketa-modu batzuk nagusi izatea, bai *zuzenbidean* eta bai *eguneroko bizimoduan* (2007: 39; 2003). Hallbergnek eta Lundek ohartarazten dute arraza zuriko pertsonen eginkizun nabarmena jokatzen dutela “Putnamen giza kapitalaren industriari” (2005: 60). *Bowling Alone* lanaren tesi nagusiari (belaunaldi berrien artean giza kapitalak izan duen gainbehera) eginiko kritiketako bat irakurtzeko, ikusi Rotolo eta Wilson (2004) eta Thomson (2005).

Ameriketako Estatu Batuetan bertan ez ezik, AEBetatik kanpo ere eztabaida interesgarria hauspotzen ari da Putnamen aurkikuntzen harira. Ondorengo atalean, begia emango diegu ikerketa horietako batzuei.

BESTE SALBUESPEN AMERIKAR BAT? Konfiantza eta aniztasuna AEBetan harago

Ikertzaile batzuek diote Putnamen eredua, funtsa behintzat, Europako gizarteetara ekar daitekeela (Lancee eta Dronkers, 2008; Flore, 2005), baina analisi gehienak, batzuk gehiago eta besteak gutxiago, alendu egiten dira azkenerako Putnamen ondorioetatik; areago, batzuk ondorio horien kontra agertzen dira erabat.

Argitaratutako azken lanari buruz jardungo dugu hasteko eta behin. Beharbada, lanik esanguratsuena ere badelako; izan ere, Europako 28 herrialdetan egiaz-tatzeko berariazko ahalegina da Putnamen tesia, 2004ko Eurobarometroaren datuak erabilia egindakoa (Gesthuizen, van der Meer & Scheepers, 2009). Lanaren ondorioa zalantzagabea da: ez dago ebidentzia bakar bat ere Putnamek AEBetan etnia-aniztasunaren eta giza kapitalaren arteko harremanari buruz ateratako ondorioak Europako gizarteetan (aztertutakoetan bederen) aplikatzeko modua erakusten duenik. Europan, funtsean beste bi aldagai direla medio gertatzen dira gizartearen giza kapitalean dauden aldeak: desoreka ekonomikoak eta herrialde bakoitzaren historia bera eta tradizio demokratikoa direla medio, hain zuzen. Ikertzaileen hitzetan: “Taula orokorrak adierazten du Europako gizarteetan ez dela etnien araberako zatiketak –Putnamek iradokitzen duenak, alegia– ez duela eragin garrantzitsuena giza kapitalean; aitzitik, taulak erakusten du demokraziaren iraunkortasunaren eta ekonomiaren aldetik batzuen eta besteen artean egon daitezkeen aldeak direla funtsezkoak” (Gesthuizen, van der Meer & Scheepers, 2009: 136). Egile horien aurretik ere horixe adierazi izan dute beste batzuek: “Europan gutxienez, badirudi aniztasunak ez duela ondorio txarrik gizartearen batasunerako edo kohesiorako” (Hooghe, Reeskens & Stolle, 2007: 395; 2005: 10).

Aurrez esan dugun moduan, aniztasunaren eta giza kapitalaren arteko harremanari buruzko eztabaida mahai gainean zegoen Europan, Putnamen lana argitaratu aurretik. Erresuma Batuan, Goodhartek eta haren “Too diverse?” artikulua bete zuten ikertzaile estatubatuarrek AEBetan jokatutako rola: “Egia des-

eroso bat azaleratzen duen jakintsu liberalarena”. *Prospect* aldizkariko editorearen tesiari kontrajarriz, aniztasunak Erresuma Batuko auzuneetako gizarte-kohesioan zer eragin duen aztertu zuen Natalia Letkik. Haren iritziz, kultura- eta etnia-aniztasunaren fenomenoari buruzko zenbait ikuspegi dela medio, *policy-makers* edo politika-arduradunak “kultura-aniztasunaren ikuskera nagusia utzi eta hainbatek 'asimilaziora itzultzea' izendatu dutena bultzatzen ari dira” (Letki, 2008: 100). Ikuspegi horien kontra, Letkiren aburuz gizartearen eta ekonomia-aren egiturak eragin nabarmenagoa du gizarte-kohesioaren ahultzean, kultura aldetik egon daitezkeen diferentziek baino.

Ipar Amerikako beste nazio handiaren adibidea, Kanadakoa, interes handikoa da. Hala, artikulu hau lantzen ari ginela eskuratu ditugun ikerketa ia guztiek berresten dute Baintingek Kanadari buruz egindako karakterizazio sendoa. Karakterizazio horren arabera, Kanada *kontrako aldean* agertzen da aniztasunaren, onarpenaren eta birbanaketaren arteko harremanei dagokienez; eztabaida akademikoetan eta politikoetan itxuraz gero eta gehiago nagusitzen ari den ikuskeraren desberdina da guztiz.

Duela hamarkada bat jada, Johnstonek eta Sorokak era honetara planteatu zuten auzia (1999: 12): “Mahai gainean den galderaren erantzunak, Kanadarako behintzat, 'Ez' izan behar du: aniztasuna ez da, bistan denez, giza kapitalaren aurkaria”. Ikuspegi berekoa da Patrick Pearce ere (2008); haren aburuz, Kanada, gero eta aniztunagoa izanik, etorkinen gehiengo zabala komunitate nazionaleko kide sentiarazteko gai izaten ari da. Pierceren arabera, horixe da adibiderik onena erakusteko Kanadako kultura-aniztasun ofizialak funtzionatu egiten duela, nahiz eta batzuek eta besteek gero eta maizago auzitan jarri¹³. Hala, Johnstonek eta Sorokak (1999), ulertzeko moduko harrotasunez, nabarmendu zuten Kanadan garrantzitsuena ez dela probintzia jakin batean zer nolako etnia-aniztasun dagoen, baizik eta herrialde osoaren historia; horrenbestez, “Kanadako kultura-aniztasunaren politikak ekarri du herrialdea batzen errazagoa izatea, eta ez zailagoa”.

Eta zergatik funtzionatzen du? Canadian General Social Survey erakundearen 2003ko datuak oinarri hartuta, Harellek eta Stollek azalpen interesgarria eman dute (2008). Kontaktuaren hipotesitik eratorritako ekarri nagusiak berreskuratzen ditu bi egile horien esplikazioak. Haien iritziz, kontakturik gabeko aniztasuna baino ez da arazo bihurtzen. Aldiz, eguneroko bizimoduan aniztasuna normaltasunez bizi baldin bada eta aniztasuna modu positiboan balioesten duen kultura eta gizarte-araua baldin badago, seguru asko aniztasun hori aktibo bat bihurtuko da gizartean. Harellen eta Stolleren iritziz, belaunaldi berrien

¹³Kanadako kultura-aniztasunari eginiko kritika goiztiar bat irakurtzeko, ikusi Bisoondath (1994).

sozializazio politikoa da bereziki garrantzitsua. Hala, haien ikerketaren ondorioetako bat da Kanadako gaztedia aniztasuna hazten ari den gizarte-testuinguruan jaio dela eta aniztasun hori esplizituki balioesten duen kultura eta legedian sozializatu dela, eta, horrenbestez, askoz modu naturalagoan bizi duela Kanadako gizartearen etnia- eta arraza-heterogeneotasun gero eta handiagoa. Alde horretatik, Kanadako ikertzaileak bat datoz AEBetan egin diren beste ikerketa batzuen emaitzekin. Ikerketa horien argitan, eskoletan haurren artean arrazen arteko kontaktua dagoenean, epe luzera, haur horiek heldu bihurtzen direnean, beltzekiko aurreiritziak murriztu egiten dira (Wood eta Sonleitner, 1996).

Oro har, Kanadan egindako ikerketa ugari irakurri ondoren ondoriozta daiteke aniztasunaren eraginez konfiantza eta giza kapitala ahultzeko joera ez dela ez halabarrezkoa ez eta konstante bat ere. Beste faktore batzuek, bai, eragin dezakete modu negatiboan gizarte-konfiantzaren mailetan (biztanleriaren tamainak, ekonomia aldetik batzuen eta besteen artean egon daitekeen aldearen zenbatekoak, baita Quebeceko auziak ere), baina ez aniztasunak edo etnia- eta kultura-heterogeneotasunak (Aizlewood & Pendakur, 2005; Kazemipur, 2005-2006; Ley, 2007; Wilkes, Guppy & Farris, 2007).

Analisi askok erakusten dute eragin-trukerik gabeko aniztasuna dela benetako arazoa, ez besterik; alegia, kultura aldetik aniztasunak diren auzuneetan bizi diren pertsonak eragin-truke iraunkor eta normalizatuak izateak prebenitu edo gutxienez murriztu egiten du gatazkarako eta gaitzusterako arriskua. Stollek, Sorokak eta Johnstonek dioten moduan, “bizilagunekin hitz egitea” (*talking with neighbors*) da biderik egokiena aniztasun-egoeretan bizikidetzari modu positiboan heltzeko (2008: 70). Horixe da, hain zuzen, Leonie Sandercock ikertzaileak garatu duen ikuspegia. Jatorriz australiarra da Sandercock, baina Kanadan bizi da aspaldian. Ahalegin bizia egin du hiriko aniztasuna kudeatzeko estrategia politikoak garatzeko, *arrotzak bizilagun biburtzea* helburu nagusizat harturik (Sandercock, 2000, 2004; Sandercock, Dickout & Winkler, 2004; Cavers, Carr & Sandercock, 2007). Eta, zeregin horretarako, tokiko espazioa, auzunea, bihurtzen da funtsezko kokagune¹⁴.

Kanadan, errenten artean aldeak dauden tokietan ezpaltsua gertatzen da, hala-ber, etnien edo arrazen aniztasuna. Phanek dion moduan, zuzen nire irudiko, uste zabaldua da aniztasun-egoeretan pertsonak ezin direla elkarrekin harremanetan jarri eragin-truke, balio, sinesmen eta esperientzia diferenteak dituztelako, baina uste zabaldu horrek ez du kontuan hartzen, alde horiek hor izan

¹⁴Munta handiko gaia da hori. Orain ezin diogu tarte handirik eskaini, baina aspaldi honetan arreta handia ari gara jartzen gaiari, egun abian den CIVERSITY ikerketa-proiektuaren bidez (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta honako lan hauen bidez: Zubero (2008), Izaola eta Zubero (2009).

arren, balio komunak ere egon daitezkeela –Phanek giza eskubideak aipatzen ditu berariaz– eta, orobat, ez ditu aintzat hartzen egiturazko desorekak direla medio gizarte-kohesiorako sortzen diren ondorio kaltegarriak (2008: 25-26).

Ondorioa: onarpena eta birbanaketa

Testu honetan, gure asmoa ez zen aspaldiko eztabaida batera lehen hurbiltzea egitea besterik. Izan ere, eztabaidak gaurkotasuna hartu du Robert Putnamen *E Pluribus Unum* artikulua argitaratu ondotik. Putnamen lanak ertz asko ditu aztertzeko, eta aztertu ere asko aztertu dira, baita kritikatu ere. Hasteko eta behin, giza kapitalari buruz duen kontzeptua auzitan jarri da. Putnamen giza kapitala pertsonen arteko eragin-trukeetara (*society-centered model*) mugatzen da kasik, eta uzkurregi agertzen da politikako eta legearen inguruko erakundeek duten zereginarekiko; zehazki, gizarteko kideen arteko konfiantzazko eta elkarrekikotasunezko harremanak garatze aldera testuinguru egokia sustatzeko erakundeek duten zereginarekiko (Rothstein & Stolle, 2007; Kumlin & Rothstein, 2005).

Horri loturik, haren aurkikuntzak herrialde garatu guztietara orokortzeko agertu duen seta ere auzitan jarri da; alegia, Ipar Amerikako eredu liberalaren eta Europako herrialde askotako eredu sozialdemokrataren artean dagoen alde izugarria kontuan hartu ez izana (Larsen, 2009; Hooghe, Reeskens & Stolle, 2005; Rothstein, 2003). Ipar Amerikako aniztasunari buruzko ikerketatik gizar-te garatu guztietara aplikatzeko moduko orokortasunak atera nahi izatea, hango biztanleria beltzaren egoera berezia kontuan izan gabe, *wishful thinking* edo *irudimenezko pentsamendu* okerrenaren adibide harrigarria da hainbat egileren irudiko. Gogora dezagun zer dioen horren harira Seymour M. Lipsetek *El excepcionalismo norteamericano* liburuaren kapitulu batean. Izenburu oso grafikoa du kapituluak –“Bi herrialde, bi balio-sistema: zuriak eta beltzak”–, eta hauxe dio pasarte batean:

Afro-amerikarren egoera nahiko desberdina izan da Ameriketako Estatu Batuetako beste arraza- edo etnia-gutxiengoen aldean. Ipar Amerikako afro-amerikarrak ez ziren beren borondatez iritsi herrialdera, pobreziatik edo bazterkeriatik ihesi; aitzitik, azpiklase baten kategorian sartu zituzten indarrez eta, hasieratik, arrazakeria jasan behar izan zuten. Bai *zuzenbidean* eta bai *egunerokoan* kastatzen hartu dituzte beren historiaren zatirik handienean eta, ondorioz, beltzen balioak, baita Europako langileenak ere, zuriak baino askoz gehiago seguruenera, taldeari loturikoak izango dira, eta ez gizabanakoari begi-

rakoak. Horrenbestez, Ipar Amerikako Kredorearen, Ipar Amerikako ideologia-apartekotasunaren, salbuespen nagusia dira beltzak (Lipset, 2000: 155)¹⁵.

Aniztasunari buruz erabiltzen duen kontzeptua ere auzitan jarri izan da (Laurent, 2007), eta baita gizarteko eta ekonomiako aniztasun/desoreken inguruan agertutako interes falta, Ipar Amerikako komunitatearen gainean gizon zuriaren begirada izatea (Hallberg & Lund, 2005), eta auzunea behaketarako eremutzat hartzea ere (Stolle & Howard, 2008: 6).

Nolanahi ere, lehen hurbiltze honetan nahiago izan dugu bigarren mailan utzi eztabaida horiek guztiak, eta Puntamen tesiaren muinera jo. Aniztasunak pertsonen arteko konfiantza eta giza kapitala higatzen duela dio tesi horrek, nor bere baitara biltzeko eta alde publikoa uzteko erreakzio orokorra sortzeraino higatu ere. Egin ditzakegun ñabardura eta kritika guztien gainetik, tesi horrek berehalako harrera izan du gure gizarteetan, zentzuzko kontua bailitzan. Normaltasun-itxura horri aurre egin behar diogu lehen-lehenik, aniztasunari buruzko ikerketan aurrera egingo badugu; izan ere, gai hori gero eta garrantzitsuagoa izango da gure gizarteetan.

Madeleine Buntingek dioen moduan, Putnamek bestelako elkartasun bat sortzeko deia egiten du, etnia-aniztasuna erronkatzat hartuta, eta ez mehatxutzat (2007a): “Itxaropenezko mezua da [Putnamena], eta, alde horretatik, ez luke nahi uzkurutasunak (*bunkering*) epe motzera izan dezakeen kostuaren inguruko titular sentsazionalistekin mezu hori lurpean geratzerik”. Halaxe da. Jakintsu liberal deserosoa, kontserbadoreek txalotua, ez da inondik ere aniztasunaren etsaia. Erronka ez da “haiek” “gure” gisako bihurtzea (*not by making 'them' like 'us'*), baizik eta “gu” deritzonaren bestelako zentzu bat sortzea, jende gehiago bilduko duena (*a new, more capacious sense of 'we'*), aniztasunarekiko gure harremana berriro eraikitzea, etnia bakoitzaren berezitasunak desegin gabe eta identitate globalak eraikiz (*overarching identities*). Etnien berezitasunak direla medio uzkurduraren erreakzio alergikoa ez sortzea bermatu beharko lukete identitate global horiek (Putnam, 2007: 163-164). Identitate horiek eraikitzeke modua ez da asko bereizten beste zenbait proposamenetatik. Sandercocken proposamenetik, esaterako: “Identitate partekatuak sendotzeko, eragin-truke esanguratsuak izateko aukera gehiago behar ditugu etnia-ildoen artean; amerikarrak (zaharrak eta berriak) lan egin, ikasi, dibertitu eta bizi diren etnia-ildoen artean. Duela mende bat, komunitate-zentroak, kirol-guneak eta eskolak izan ziren tresnarik eraginkorrenak etorkinak gizarteratzeko, eta berriro ere inbertsioa egin behar dugu gune eta jarduera horietan, era horretara guztiok eroso senti gaitezten aniztasunarekin” (Putnam, 2007: 164).

¹⁵Hortik Wacquanten grina (2007) Ipar Amerikako *hiperguetto* beltza eta Frantziako *banlieueak* analitiki bereizteko.

Hallbergék eta Lundek eginiko kritikari erreparatuz (2005: 63), “merke-zurreko hitzak” ote dira, formula sinplistik, sentimentalak, arazoaren benetako funtsa –baliabideen banaketa desorekatua, alegia– ezkutatu besterik egiten ez dutenak? Putnamen asmoak epaitzeari utzita, egia da, arestian adierazi den moduan, gero eta heterogenoagoak izango diren gizarteetan gerta daitezkeen kulturatirabirei arreta ematearen poderioz, berdintasunaren egiturazko alderdiak alde batera uzten ari direla. Horren adibide da 2005eko udazkenean Frantziako hiriguneen kanpoaldean izandako istiluen harira gertatutakoa: “kultura-gatazka” hutsera mugatu ziren istilu haiek, eta ezkutatu egin zen hiriguneen degradazioa, laneko prekaritatea eta *banlieue*tako bizilagunen txirotzea (Giddens, 2005; Hérin, 2008).

Uslanerrek ikerketa interesgarri batean dio kontaktu hutsa ez dela nahikoa konfiantza sortzeko edo areagotzeko –konfiantzaren “uhalek eragilearen” teoria sinpleegia da–, eta, orobat, aniztasunak, bere horretan, ez duela gizarte-konfiantza murrizten (2006). Arazoa ez da aniztasuna, gizarte eta bizileku aldetik gutxiengoak baztertzeko baizik, eta, horri loturik, ia beti, desorekak egoten dira. Bereizkerian txertaturiko aniztasunak higatzen du gizarte-konfiantza; aitzitik, integrazioan txertaturiko aniztasunak taldeen arteko kontaktua laguntzen du, eta helburu partekatutako eta jomuga kolektiboak planteatzeko aukera sortzen (Rothwell, 2009).

Ildo berean dago Allportek bere garaian (1977) egin zuen ohartarazpen klasikoa: kulturen arteko kontaktuak taldeen arteko harremanetan eragin mesedegarria izango badu eta, zehazki, aurreiritziak gainditzen lagunduko badu, kontaktu horrek baldintza jakinetan gertatu behar du; hain zuzen, tartean diren gizabanako edo eragileen arteko estatusa berdina izanda, jomuga edo helbururen bat partekatuta, eta taldeen arteko lankidetzeta eta erakundearen babesa izanda (agintariak, legeak eta ohiturak). Azken batean, eta zehaztasun franko egin daitezkeen arren, badirudi garai bateko *contact hypothesis* delakoak nahiko ondo funtzionatzen duela, kontaktu horiek baldintza egokietan gertatzen badira, betiere¹⁶.

Eta, baldintza horien artean, baldintza sozioekonomikoak funtsezkoak dira. Ekonomia aldetik batzuen eta besteen artean egon daitezkeen aldeak eragin erabakigarria du gizarte-sareen egitura eta trinkotasunean (Jordahl, 2007). Herrialde askotan herritarren konfiantza eta giza kapitala maila baxuetan egotearen arrazoia ez da aniztasun handiagoa edo txikiagoa egotea, baizik eta gobernuaren aldetik desorekak murrizteko eta gizarte-politika unibertsalistak

¹⁶Horren harira, nabardurak nabardura, ikusi kontaktuaren hipotesiari buruzko teoria hori berresten duten hainbat berrikuspen: Robinson (1980); Sigelman & Welch (1993); Powers & Ellison (1995); McLaren (2003); Binder et al. (2009).

ezartzeko ekimenik ez izatea (Rothstein & Uslaner, 2005; 2006). Gizarte-konfiantza mendeko aldagaitzat har daiteke –horixe egiten dute Putnamek eta giza kapitalari buruzko ikerketa gehienek–, eta, mendeko izate horretan, biztanleria jakin baten osaera etnikoan eta kulturalean izandako aldaketek eragiten dute bereziki aldagai horretan. Baina gizarte-konfiantza aldagai beregainizatzen ere har daiteke, eta horren bidez azal daitezke pertsonen eta gizarteek immigrazioarekiko eta etnia-aniztasunarekiko dituzten jarrera eta politikak –batzuetan, oso alde handia izaten da jarrera eta politika horietan– (Herrerros eta Criado, 2009). Ikuspegi horretatik, erakunde publikoen egitekoa funtsezkoa da “lehiaren mehatxua” (*competitive threat*) gainean duen eszenatoki ezpaltzua- ren larritasuna saihesteko (Kilpi, 2008). Erakunde politikoaren eginkizuna funtsezkoa da giza kapitala sortzeko, baina suntsitu ere egin dezakete (Rothstein & Stolle, 2002).

Gogora dezagun Martinelloren gogoeta errealista (1998: 65): “Gakoa ez dago aniztasun hori onartzen dela dioen printzipioan, baizik eta aurrekontu publiko bidezko onarpen zehatzean. Kultura-aniztasuna baliabide publikoen eta birbanaketaren baitan dago eta, beraz, gizarte-justiziaren baitan”. Justizia “diferente- ekiko”, ia beti baldintza sozioekonomiko prekarioen mende daudelako; eta justizia, orobat, harrerako herrialdeetan iritsi berrien eraginez beren lanpostuetan, zerbitzuetan, eskubideetan kaltetuta senti daitezkeen gizarteko sektoreekiko. Ikerketa askok erakutsi dute lan-merkatuan gertatutako aldaketak (gero eta malguagoak eta desarautuagoak dira merkatu horiek) eta ongizatearen erakundeetan gertatutako aldaketak (gero eta maizago jartzen da auzitan haien bide- ragarritasuna etorkizunera begira, bai eta haien zerbitzuen kalitatea ere) modu objektiboan edo subjektiboan jasan dituztenek agertzen dutela jarrerarik okerrera immigrazioarekiko: emakumeek, adinekoek, prestakuntza gutxien duten langileek, ikasketa-maila baxua dutenek (Ross, Mirowsky & Pribesh, 2000; Cea, 2007: 203; Ikuspegi, 2008; Martínez eta Duval-Hernández, 2009). Areago, “neoproletariatzat” jo izan dira zenbait alderdi populistak eta xenofobo; hala nola Frantziako Alderdi Nazionala, Austriako Alderdi Liberala eta Italiako Askatasunaren Poloa. Izan ere, haien hautesleen ehuneko handi bat langileek eta prestakuntzarik gabeko beharginen osatzen dute (Casals, 2003: 46):

Gerra arteko urteetan bezala baina globalizazioaren garaira erabat egokituta, nazional-populisten inklusioari buruz aurkezten duten mezuak bazterkeria dakar gerora. Eta, gainera, langabeek, lana galtzeko beldurra dutenek, beren segurtasuna galdu dutenek jada bizi izan duten bazterketaren alternatibatzat aurkezten dute. Horrenbestez, baztertuak, *bazterkeria* hitzari beldur gutxien beharko lioketenek, ikusten dutelarik hitz horrek beste batzuei erreferentzia egiten diela –etorkinei, atzerritarrei, “arrotzei”– eta ez berei, herritar izateari uzten diote, hitzarmen errepublikarrean betiko ziurtzat jotzen zituzten bizi-baldintzak kendu baitizkie gizarteak, eta, horrenbestez, berekin zuen kontratua hautsi baita (Gallego, 2006: 29).

“Who cares about the white working class?” (Nor arduratzen da langile zuriez?). Izenburu horixe du Runnymede Trust erakundeak argitaratutako lanetako batek. Erresuma Batuko gizarte gero eta kulturantzunagoaren baitan berdintasuna eta justizia sustatze aldera ikerketa eta prestakuntza-lan eskerga egiten ari da elkarte hori 1968. urteaz geroztik. Lan horren editoreak zehazten duen moduan, oso bitxia da ikustea langile-klaseari buruzko erreferentzia oro nola desagertu den, non eta immigrazioari eta kultura-aniztasunaren gaiari ez zaion heltzen; eta, halakoetan, “Erresuma Batuko historiaren sakontasunetik berragertzen da langile-klasea”. Baina agertzen da ez iritzi publikoaren eta ardura-dun politikoen arreta langileen arazoan gain finkatzeko, baizik eta hazten ari den etnia- eta kultura-aniztasunaren biktimatza aurkezteko langileak: “Klasea kultura-aniztasuna kolpatzeko mailutza erabiltzea, tira, baina guztientzako berdintasun handiagoa eskatzeko erabiltzea jada ez da ametzekoa” (Sveinsson, 2009: 4).

Lamontek Ipar Amerikako langileen artean klasearen, arrazaren eta immigrazioaren artean sortzen diren harremanei buruz egindako lan mardul batean aipatzen duen moduan, “erlatibismo kulturala, kultura-aniztasuna, edo arraza-diferentzien gorespina –zirkulu akademikoetan, oro har, arrazakeriaren kontrako antidototzat hartzen direnak– ez dira agertzen langileek munduari buruz dituzten ikuskeretan; ez behintzat nik hitz egindako langileen ikuskeretan”. Eta honela amaitzen du: “Beharbada, arrazakeriaren kontrako diskurtso akademikoak giza izatearen unibertsaltasuna azpimarratu beharko luke; izan ere, kaleko jendearen ikuspegiak hurbilago sentituko luke arrazoitze hori, kultura-aniztasunarekin eta erlatibismo kulturalarekin zerikusia duten argudio intelektual gehienak baino” (Lamont, 2000: 71).

“Hartu-eman handiagoa eta elkarri egokitzeko denbora gehiago falta dugu”, laburbiltzen du zentzu handiz Subiratsek (2007). Berdintasun sozialean eta ekonomikoan, gehituko genuke guk.

Bibliografía

- Aizlewood, Amanda & Ravi Pendakur (2005): "Ethnicity and Social Capital in Canada", *Canadian Ethnic Studies*, 37 (2): 77-102.
- Alesina, Alberto & Eliana La Ferrara (2000): "Participation in heterogeneous communities", *Quarterly Journal of Economics*, 115 (3): 847-904.
- _____ (2002): "Who trust others?", *Journal of Public Economics*, 85: 207-234.
- Allport, Gordon W. (1977): *La naturaleza del prejuicio*. Buenos Aires: Eudeba.
- Arroyo, Eduardo (2007): "Inmigración y decadencia: el virus que carcome el interior de EEUU", *El Semanal Digital.com*, 25 de agosto. <http://www.elsemanaldigital.com/blog.asp?idarticulo=72011&mes=2&ano=2007>
- Banting, Keith G. (2005): "Canada as Counter-Narrative. Multiculturalism, Recognition and Redistribution". Ontarioko Canadian Political Science Association elkartean aurkeztutako agiria.
- Bauman, Zygmunt (2001): *La sociedad individualizada*, Madril: Cátedra.
- _____ (2006): *Confianza y temor en la ciudad. Vivir con extranjeros*, Bartzelona: Arcadia.
- Binder, Jens *et al.* (2009): "Does Contact Reduce Prejudice or Does Prejudice Reduce Contact? A Longitudinal Test of the Contact Hypothesis Among Majority and Minority Groups in Three European Countries", *Journal of Personality and Social Psychology*, 96 (4): 843-855.
- Bisoondath, Neil (1994): *Selling Illusions: The Cult of Multiculturalism in Canada*, Penguin: Toronto.

- Briggs, Xavier de Souza (2008): "On Half-Blind Men and Elephants: Understanding Greater Ethnic Diversity and Responding to 'Good Enough' Evidence", *Housing Policy Debate*, 19 (1): 218-229.
- Buchanan, Patrick J. (2006): *State of Emergency: The Third World Invasion and Conquest of America*, New York: Thomas Dunne Books.
- _____ (2007): "Dr. Putnam's Bunker-Buster".
<http://www.humanevents.com/article.php?print=yes&id=21901>
- Bunting, Madeleine (2007a): "Immigration is bad for society, but only until a new solidarity is forged", *The Guardian*, 18 June.
- _____ (2007b): "Capital ideas". *The Guardian*, 18 July.
<http://www.guardian.co.uk/society/2007/jul/18/communities.guardiansocietysupplement>. Desde esta página puede enlazarse con una entrevista en formato audio con Robert Putnam: <http://audio.theguardian.tv/sys-audio/Society/audio/2007/07/17/putnam.mp3>
- Casals, Xavier (2003): *Ultrapatriotas. Extrema derecha y nacionalismo de la guerra fría a la era de la globalización*, Bartzelona: Crítica.
- Cavers, Val, Paula Carr & Leonie Sandercock (2007): "How strangers become neighbours: Constructing citizenship through neighbourhood community development", Metropolis British Columbia, Centre of Excellence for Research on Immigration and Diversity, Working Paper Series, No. 07-11, November.
- Cea, M^a Ángeles (2007): *Inmigración, racismo y xenofobia en la España del nuevo contexto europeo*, Madril: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.
- Coffé, Hilde & Benny Greys (2006): "Community heterogeneity: A burden for the creation of social capital?", *Social Science Quarterly*, 87: 826-845.
- Dawkins, Cassey J. (2008): "Reflections on Diversity and Social Capital: A Critique of Robert D. Putnam's 'E Pluribus Unum: Diversity and Community in the Twenty-First Century The 2006 Johan Skytte Prize Lecture'", *Housing Policy Debate*, 19 (1): 208-217.
- Fieldhouse, Edward & David Cutts (2009): "A comparative study of social capital and neighbourhood composition in the U.S. and England", University of Manchester, Institute for Social Change. <http://www.humanities.manchester.ac.uk/social-change/publications/working/documents/schmipaperfinal.pdf>

Flore, Giulio (2005): "Social capital in diverse communities", ESDS Government Research Conference 2005. <http://www.ccsr.ac.uk/esds/events/2005-11-04/flore.pdf>

Fukuyama, Francis (1998): *La confianza*, Ediciones B: Bartzelona.

_____ (2000): *La gran ruptura*, Ediciones B: Bartzelona.

Gallego, Ferrán (2006): "El malestar de una subcultura: la incomodidad teórica de la extrema derecha nacional-populista en Europa", *Archipiélago*, 72: 21-30.

Gesthuizen, Maurice, Tom van der Meer & Peer Scheepers (2009): "Ethnic diversity and social capital in Europe: tests of Putnam's thesis in European countries", *Scandinavian Political Studies*, 32 (2): 121-142.

Giddens, Anthony (2005): "Los disturbios son un asunto socioeconómico", *El País-en*, azaroaren 13a. http://www.elpais.com/articulo/reportajes/disturbios/asunto/socioeconomico/elpepusocdmg/20051113elpdmgrep_2/Tes

_____ (2007a): "Diversity and trust", *Prospect*, November. http://www.prospect-magazine.co.uk/article_details.php?id=9886

_____ (2007b): "Doubting diversity's value", *Foreign Policy*, November/December (Gaztelaniazko edizioaren 2008ko abendu-urtarrileko zenbakian argitaratu zen).

Giner, Salvador (2004): "Diversidad y democracia en las ciudades: ciudadanía pública", en VV.AA., *Diversidad y convivencia en las ciudades*, Bartzelona: UIM/Fundació Carles Pi i Sunyer/CEMCI.

Goldsmith, William M. (2006): "Prof. Disputes Paper Portrayal", *The Harvard Crimson*, October 26. <http://www.thecrimson.com/printerfriendly.aspx?ref=515276>

Goodhart, David (2004a): "Too diverse?", *Prospect*, February. <http://www.prospect-magazine.co.uk>

_____ (2004b): "Diversity divide", *Prospect*, April.

Hallberg, Peter & Joshua Lund (2005): "The business of apocalypse: Robert Putnam and diversity", *Race & Class*, 46 (4): 53-67.

- Harell, Allison & Dietlind Stolle (2008): "Ethnic Ties in Multinational States: Ethnic Diversity and the Development of Generalized Trust". Paper presentado en la reunion annual de la American Political Science Association, Boston, August.
- Hérin, Robert (2008): "Violencias en las periferias urbanas francesas. Los disturbios del otoño de 2005", *Scripta Nova*, XII liburukia, 270 zka. (96). <http://www.ub.es/geocrit/sn/sn-270/sn-270-96.htm>
- Hero, Rodney (2003): "Social Capital and Racial Inequality in America", *Perspective on Politics*, 1 (1):113-122.
- _____ (2007): *Racial Diversity and Social Capital: Equality and Community in America*, Cambridge/New York: Cambridge University Press.
- Herreros, Francisco & Henar Criado (2009): "Social Trust, Social Capital and Perceptions of Immigration", *Political Studies*, 57. liburukia: 337-355.
- Hoogue Marc, Tim Reeskens & Dietlind Stolle (2005): "Integration Regimes in European Nation-States. Generalized Trust and Ethnocentrism in European Societies". Québec, 2005eko urria. IRPP 3. Biltzarrean: Diversity and Canada's Future-n aurkeztutako agiria.
- _____ (2007): "Diversity, Multiculturalism and Social Cohesion: Trust and Ethnocentrism in European Societies", en *Belonging? Diversity, Recognition and Shared Citizenship in Canada*, III. liburukia, arg. Keith Banting, Thomas Courchene y F. Leslie Seidle, Montreal: Institute for Research on Public Policy.
- Ikuspegi (2007): *2007 Barometroa. Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak*, Ikuspegi, Bilbo.
- Ikuspegi (2008): *2008 Barometroa. Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak*, Ikuspegi, Bilbo.
- Izaola, Amaia e Imanol Zubero (2009): "De la ciutat mestissa a la ciutat mestissada: cultura i pràctica de la interculturalitat", *Barcelona societats*, nº 16: 42-51.
- Johnston, Richard & Stuart Soroka (1999): "Social Capital in a Multicultural Society: The Case of Canada". Quebec, 1999ko ekaina. Canadian Political Science Association elkartearen urteko batzarrean aurkeztutako agiria. <http://www2.arts.ubc.ca/cresp/rjmulti.pdf>

- Jonas, Michael (2007): "The downside of diversity", *The Boston Globe*, August 5. http://www.boston.com/news/globe/ideas/articles/2007/08/05/the_downside_of_diversity
- Jordahl, Henrik (2007): "Inequality and Trust", Research Institute of Industrial Economics, IFN Working Paper No. 715.
- Kazemipur, Abdolmohammad (2005-2006): "Social Trust, Ethnic Diversity, and Immigrants: The Case of Canada", University of Alberta, Edmonton, PCE-RII Working Paper No. WP06-05. <http://pcerii.metropolis.net/WorkingPapers/WP06-05.pdf>
- Kilpi, Elina (2008): "Prejudice as a response to changes in competitive threat: Finnish attitudes towards immigrants 1986-2006", University of Oxford, Sociology Working Papers, No. 2008-01.
- Knack, Stephen & Philip Keefer (1997): "Does social capital have an economic payoff? A cross-country analysis", *Quarterly Journal of Economics*, 112 (4): 1251-1288.
- Kumlin, Staffan & Bo Rothstein (2005): "Making and Breaking Social Capital: The Impact of Welfare-State Institutions", *Comparative Political Studies*, 38 (4): 339-365.
- _____ (2008): "Minorities and Mistrust. The Cushioning Impact of Social Contacts and Institutional Fairness", University of Gothenburg, The QOG Institute, Working Paper Series, 18.
- Lamont, Michèle (2000): *The Dignity of Working Men: Morality and the Boundaries of Race, Class, and Immigration*. New York/Cambridge-London: Russell Sage Foundation/Harvard University Press.
- Lance, Bram & Jaap Donkers (2008): "Ethnic diversity in neighbourhoods and individual trust of immigrants and natives: a replication of Putnam (2007) in a West-European country". Brusela, 2008ko maiatzaren 15a. Royal Flemish Academy of Belgium for Science and the Arts akademian, International Conference on Theoretical Perspectives on Social Cohesion and Social Capital biltzarrean aurkeztutako agiria. <http://www.eui.eu/Personal/Dronkers/English/trust.pdf>
- Larsen, Christian Albrekt (2009): "Why social cohesion declines in liberal regimes and increases in social democratic regimes. A comparative study of

- USA, Great Britain, Denmark and Sweden". RC19 Montreal conference bilzarrean aurkeztutako agiria.
- Laurent, Éloi (2007): "Robert Putnam and the new American indifference". <http://www.laviedesidees.fr/Robert-Putnam-and-the-new-American.html>
- Legrain, Philippe (2008): "Is free immigration compatible with a European-style welfare state?", The Globalisation Council, Expert Report nr. 11.
- Leigh, Andrew (2006): "Trust and redistribution", *Dialogue*, 25 (3): 43-49.
- Ley, David (2007): "Multiculturalism: A Canadian Defence", Vancouver Centre of Excellence, Working Paper Series, No. 07-04, March.
- Lipset, Seymour Martin (2000): *El excepcionalismo norteamericano. Una espada de dos filos*, México: Fondo de Cultura Económica.
- Lloyd, John (2006): "Study paints bleak picture of ethnic diversity", *Financial Times*, October 8. <http://www.ft.com>
- Marshall, T.H. y Bottomore, Tom (1998): *Ciudadanía y clase social*, Madrid: Alianza Editorial.
- Martínez, Ferran & Robert Duval-Hernández (2009): "Hostility Toward Immigration in Spain", Bonn: Institute for the Study of Labor, IZA DP No. 4109, April.
- McLaren, Lauren M. (2003): "Anti-Immigrant Prejudice in Europe: Contact, Threat Perception, and Preferences for the Exclusion of Migrants", *Social Forces*, 81 (3): 909-936.
- Malaparte, Curzio (2007): "La diversidad étnica es mala para la salud (social)", *El Manifiesto*, 31 agosto. <http://www.elmanifiesto.com/articulos.asp?idarticulo=717>
- Martiniello, Marco (1998): *Salir de los guetos culturales*. Barcelona: Bellaterra.
- Massey, Douglas & Nancy A. Denton (1993): *American Apartheid. Segregation and the Making of the Underclass*, Cambridge/London: Harvard University Press.

- Morales, Laura *et al.* (2008): "Capital social, pautas identitarias y actitudes hacia 'los otros': la incorporación cívica de la población de origen inmigrante en Barcelona Y Madrid", *Panorama Social*, nº 8: 119-142.
- Newton, Kenneth (2007): "The New Liberal Dilemma: Social Trust in Mixed Societies". Helsinki, 2007ko maiatza. European Consortium for Political Research Joint Session of Work-shops-en aurkeztutako agiria.
- Neyden, Philip et al. (1998): "Neighborhood Racial and Ethnic Diversity in U.S. Cities", *Cityscape*, 4 (2): 1-17.
- Offe, Claus (2006): *Autorretrato a distancia. Tocqueville, Weber y Adorno en los Estados Unidos de América*, Buenos Aires: Katz.
- Pearce, Nick (2004): "Diversity versus solidarity: a new progressive dilemma?". Institute for Public Policy Research.
<http://www.ippr.org/articles/index.asp?id=464>
- Pearce, Patrick W.J. (2008): "Bridging, Bonding, and Trusting: The Influence of Social Capital and Trust on Immigrants' Sense of Belonging to Canada", Atlantic Metropolis Centre Working Paper Series, No. 19.
- Phan, Mai B. (2008): "We're all in this together: Context, contacts, and social trust in Canada", *Analyses of Social Issues and Public Policy*, 8 (1): 25-26.
- Powers, Daniel A. & Christopher G. Ellison (1995): "Interracial Contact and Black Racial Attitudes: The Contact Hypothesis and Selectivity Bias", *Social Forces*, 74 (1): 205-226.
- Putnam, Robert D. (1995): "Bowling Alone", *Journal of Democracy*, 6 (1): 65-78.
- _____ (2002): *Sólo en la bolera. Colapso y resurgimiento de la comunidad norteamericana*, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores: Bartzelona.
- _____ (ed.) (2003): *El declive del capital social. Un estudio internacional sobre las sociedades y el sentido comunitario*, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores: Bartzelona.
- _____ (2007): "E Pluribus Unum: Diversity and Community in the Twenty-first Century. The 2006 Johan Skytte Prize Lecture", *Scandinavian Political Studies*, 30(2): 137-174. <http://www3.interscience.wiley.com/cgi-bin/full-text/118510920/PDFSTART>

- _____ (2009): "Diversity, Social Capital, and Immigrant Integration. Introductory Remarks", *National Civic Review*, Special Issue, Spring: 3-5.
- Richwine, Jason (2009): "A Smart Solution to the Diversity Dilemma". http://www.american.com/archive/2009/august/dealing-with-diversity-the-smart-way/article_print
- Robinson, James Lee: (1980): "Physical Distance and Racial Attitudes: A Further Examination of the Contact Hypothesis", *Phylon*, 41 (4): 325-332
- Ross, Catherine E., John Mirowsky & Shana Pribesh (2000): "Powerlessness and the amplification of threat: Neighborhood disadvantage, disorder, and mistrust", *American Sociological Review*, 66: 568-591.
- Rothstein, Bo (2003), "El capital social y el modelo socialdemócrata. El modelo sueco y la sociedad civil", en *El declive del capital social. Un estudio internacional sobre las sociedades y el sentido comunitario*, ed. Robert D. Putnam, Bartzelona: Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores.
- _____ (2008): "When trust collapses", *Axess*, 4. <http://www.axess.se/magasin/default.aspx?article=309>
- _____ & Dietlind Stolle (2002): "How Political Institutions Create and Destroy Social Capital: An Institutional Theory of Generalized Trust". Paper preparado para el 98th Meeting of the American Political Science Association, Boston. <https://apsanet.org/~ep/papers/2003winner.pdf>
- _____ (2007): "The Quality of Government and Social Capital: A Theory of Political Institutions and Generalized Trust", Göteborg University: QOG Working Paper Series 2007:2.
- _____ & Eric M. Uslaner (2005): "All for All: Equality and Social Trust", LSE Health and Social Care Discussion Paper, No. 15, July. http://papers.ssrn.com/papers.cfm?abstract_id=824506
- _____ (2006): "All for All: Equality, Corruption and Social Trust", Göteborg University, QOG Working Paper Series 2006:4.
- Rothwell, Jonathan (2009): "Trust in Diverse, Integrated, Cities: A Revisionist Perspective". http://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=1358647

Rotolo, Thomas & John Wilson (2004): "What Happened to the 'Long Civic Generation'? Explaining Cohort Differences in Volunteerism", *Social Forces*, 82 (3): 1091-1121.

Sailer, Steve (2007): "Fragmented Future".

<http://www.amconmag.com/print.html?Id=AmConservative-2007jan15-00007>

Sandercock, Leonie (2000): "When strangers become neighbours: Managing cities of difference", *Planning Theory & Practice*, 1 (1): 13-30.

_____ (2004): "Sustaining Canada's multicultural cities: Learning from the local". Conferencia ante la Canadian Federation for the Humanities and Social Sciences, Ottawa, February.

_____, Leslie Dickout & Ranja Winkler (2004): "The quest for an inclusive city: An exploration of Sri Lankan Tamil experience of integration in Toronto and Vancouver". Vancouver Centre of Excellence, Research on Immigration and Integration in the Metropolis, Working Paper Series, No. 04-12, May.

San Martín, Eduardo (2006): "La Europa de las etnias", *ABC*, 16 octubre. http://www.abc.es/hemeroteca/historico-16-10-2006/abc/Opinion/la-europa-de-las-etnias_1423775388152.html

Sigelman, Lee & Susan Welch (1993): "The Contact Hypothesis Revisited: Black-White Interaction and Positive Racial Attitudes", *Social Forces*, 71 (3): 781-795.

Song, Sarah (2008): "Three Models of Civic Solidarity". Legal Theory Workshop, UCLA School of Law. http://www.law.ucla.edu/docs/song__civic_solidarity_paper__ucla.pdf

Sorkin, Michael, ed. (2004): *Variaciones sobre un parque temático. La nueva ciudad americana y el fin del espacio público*, Bartzelona: Gustavo Gili.

Stolle, Dietlind, Stuart Soroka & Richard Johnston (2008): "When Does Diversity Erode Trust? Neighborhood Diversity, Interpersonal Trust and the Mediating Effect of Social Interactions", *Political Studies*, 56: 57-75.

Stolle, Dietlind & Marc Morjé Howard (2008): "Civic Engagement and Civic Attitudes in Cross-National Perspective: Introduction to the Symposium", *Political Studies*, 56: 1-11.

- Subirats, Joan (2007): “¿Ellos y nosotros?”, *El País*, Kataluniako edizioa, ekainaren 23a, 38.
- Sveinsson, Kjartan Páll (ed.) (2009): *Who Cares About the White Working Class?*, London: Runnymede Trust.
- Taguieff, Pierre-André (2008): “Le multiculturalisme, ou le cheval de Troie de l’islamisme”. http://www.communautarisme.net/Le-multiculturalisme,-ou-le-cheval-de-Troie-de-l-islamisme_a1012.html
- Taylor, Jared (2007): “Diversity Destroys Trust”, en *American Renaissance*, 18. liburukia, 9. zka., September. <http://www.amren.com/ar/2007/09/>
- The American Interest (2008): “Bowling with Robert Putnam”. *The American Interest Magazine*, January-February. <http://www.the-american-interest.com/article.cfm?piece=374>
- Thomson, Irene Taviss (2005): “The Theory That Don't Won't Die: From Mass Society to the Decline of Social Capital”, *Sociological Forum*, 20 (3): 421-448.
- Tocqueville, Alexis de (2005): *Quince días en las soledades americanas*, Bartzelona: Ediciones Barataria.
- Uslaner, Eric M. (2006): “Does Diversity Drive Down Trust?”, Fondazione Eni Enrico Mattei, Milano, EURODIV Paper, n. 23, April.
- Vertovec, Steven (2006): “The Emergence of Super-diversity in Britain”, Vancouver Centre of Excellence, Working Paper Series, No. 06-14.
- Wacquant, Loïc (2007): *Los condenados de la ciudad. Gueto, periferias y Estado*, Buenos Aires: Siglo XXI.
- Wilkes, Rima, Neil Guppy & Lily Farris (2007): “Canadian Attitudes Towards Immigration: Individual and Contextual Influences”, Metropolis British Columbia, Working Paper Series, No. 07-08, October.
- Wilson, James Q. (2007): “Bowling with Others”. <https://www.commentarymagazine.com/printarticle.cfm/bowling-with-others-10936>
- Wood, Peter B. & Nancy Sonleitner (1996): “The effect of childhood interracial contact on adult antiblack prejudice”, *International Journal of Intercultural Relations*, 20 (1): 1-17.

Zubero, Imanol (2008): “Construcción y deconstrucción de extraños en el ámbito local: de las identidades predadoras a las identificaciones dialogantes”, en Sonia Fleury, Joan Subirats, Ismael Blanco, *Respuestas locales a inseguridades globales: innovación y cambios en Brasil y España*, Barcelona: CIDOB.

